



U-BAI BERRIUP

PROIEKTU EKINTZAILE SORTZE ETA
GARAPENERAKO PROGRAMA

ELKARLANEAN:

1 - Epeak eta Izen-ematea

Parte hartzeko, ekintzaileak izena eman beharko dute U-BAI BerriUp-en webgunean. Izen-ematea doakoa da. Izena emateko epea, 2024ko urtarrilaren 29tik martxoaren 15ra bitartean izango da, biak barne.

Lehenik eta behin, Ibilbide nabarmeneko profesionalek osatutako epaimahaik parte-hartzaile guztiak aztertuko dituzte, horien artetik irabazleak hautatzeko. Ondoren, irabazleekin harremanetan jarriko dira eta, idatzi baten bitartez, beraien parte hartzeko konpromisua adierazi beharko dute.

BerriUp-ek eta UBAllek eskeinitako ongi etorri baten bitartez, martxoaren 14an formazioa abian jarriko da eta 16 asteko saio pertsonalizatuak eskeini ondoren, ekainak 20an prestakuntza bukatutzat emango da.

2- Programa

Saio guztiak ostegunetan izango dira 15 egunetik behin, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Formazioa, Torre Madariaga, Busturian, emango da eta parte hartzaileen asistentzia presentziala derrigorrezkoa izango da.

Saio "teorikoez" gain, talde antolatzaileak, saio hibridoak eta taldeen beharretara egokitzen diren bisitak programatuko dituzte. Adibidez: proiektuen feedback pertsonalak jasotzeko bilerak, mentore sareko enpresa bisitak... Saio hauek formazio astean barne sartuko dira.

- **1. Saioa - Martxoak 27:** Ongi etorria
- **2. Saioa - Apirilak 10:** Ekintzaileen harrera
- **3. Saioa - Apirilak 17:** Erronken detekzioa
- **4. Saioa - Apirilak 24:** Erronken balioztapena/definizioa eta ideien abieraztapena
- **5. SAIOA - Maiatzak 8:** Ideia izatetik proiektura - ibilbide-orriaren definizioa
- **6. SAIOA - Maiatzak 22:** Finantzaabideak
- **7. SAIOA - Maiatzak 29:** Prototipoen garapena
- **8. SAIOA - Ekainak 12:** Balioztape:na
- **9. SAIOA - Ekainak 19:** Demo Day

Saioetan landuko diren gaiak:

1. Programarako sarrera eta Urdaibai - Bizkaia eta Euskadiko empresa ekosistema ezagutu
2. Taldea sortzeko dinamikak.
3. Laneko metodologiaren eta tresnen hastapenak.
4. Lurralde barruko erronkak definitzea eta baliozkotzea
5. Proiektuen eta soluzioen proposaketak
6. Prototipoen sorkuntza eta proiektuen balioztatzea.
7. Bisitak eta proiektuak erakusteko aukera

3- Metodologia

Metodologiaren oinarria talde lanaren, praktikaren eta ekosistemako partekideen balioztatzenaren bitartez ikastea da. Programan zehar, esperientzia handiko profesional, mentore eta enpresen bisiten bitartez ikasiko dugu, gero, ateratako oinarri guztiak ekintzaile bakoitzaren proiektuetan aplikatzeko.

Parte-hartzaileek, programan zehar eraikiko diren proiektu edo ideiak abian jartzeko erraztuko dutuzten tresna eta metodologiak ikasiko dituzte.

4- Balorazio-irizpideak

(1 MÍN - 5 MÁŠ)

| KONTZEPTUA | PUNTAZIA | PUNTUACIÓN SOBRE PESO | PISUA |
|------------------------------|----------|-----------------------|-------|
| ESKURAGARRITASUNA | 4 | 0.04 | 5% |
| HELBIDEA | 3 | 0.24 | 20% |
| PROFILA | 5 | 0.25 | 30% |
| U-BAIREKIN LOTUTAKO SEKTOREA | 4 | 0.04 | 20% |
| SENTSAZIOAK | 4 | 0.20 | 25% |
| TOTAL | | 77% | 100% |

Taulan, ekintzaileak nola puntuatzen eta balioesten diren azaltzen da. Epaimahaiak puntuazio ezberdinak emango dituzte.

- **Prestutasuna:** Garrantzitsua da programan parte hartzen duten pertsonen saioetara joateko aurre prestutasuna eta taldean lan egiteko denbora izatea.
- **Helbidea:** Urdaibai eskualdean bizi direnek lehentasuna izango dute programan parte hartzeko. Hala ere, gertu bizi diren pertsonak izena ematera gonbidatzen ditugu, baldin eta gainerako baldintzak betetzen badituzte.
- **Profila:** Ekintzailearen profila ezaugarririk garrantzitsuenetarikoa da. Pertsonaren konpromezua eta proiektua garatzeko gogoak kontuan hartuko dira. Talde anitza, orekatua (teknikoa eta negozioa) eta ideiarekin garapenarekin konpromezua sortu nahi da. Aurretik garatutako proiektuetan izandako esperientzia kontuan hartzen da.
- **UBAI-erlazio sektoriala:** Eskualdeko ekintzailea bada eta Urdaibaiko esparru ekonomikoko arloekin zerikusia duten proiektuak badira, positiboki kontuan hartuko dira.
- **Sentsazioak:** Parte-hartzaileari buruzko sentsazio orokorra, bereziki ekintzaileak proposatzen diguna betetzeko gaitasuna duela ikusten badugu positibotzat joko da.